



ZESTOAKO UDALA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

**ZESTOAKO ARGITERIA PUBLIKOAREN SAREA OSATZEN DUTEN
INSTALAZIOEN ETA EKIPOEN ENERGIA-ZERBITZUAK, MANTENTZE-
LANEKIN ETA ERABATEKO BERMEAREKIN.**



ZESTOAKO UDALA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza teknikoan agiri honen eta haren eranskinen helburua da hauek kontratatzeko indarrean egongo diren prestazioen irismena eta baldintzak arautzea eta zehaztea: **ZESTOAKO ARGITERIA PUBLIKOAREN SAREA OSATZEN DUTEN INSTALAZIOEN ETA EKIPOEN ENERGIA-ZERBITZUAK, MANTENTZE-LANEKIN ETA ERABATEKO BERMEAREKIN.**

Kontratatu beharreko zerbitzuen helburua honako prestazio hauek ematea da:

P1 prestazioa - Energia-kudeaketa: kontratu honek barnean hartzen dituen instalazioen funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren energia-kudeaketarako eta ustiaketarako teknikak gauzatzea, argiteria-instalazioen eskariaren energia-hornikuntza barnean hartuta. Kontratu honen eraginpeko instalazioek kontsumitutako energiagatiko kostuak ere prestazio horren barnean hartzen dira.

P2 prestazioa - Mantentze-lanak: prebentziozko mantentze-lanak egitea, kanpoko argiteria-instalazioen eta haien osagai guztien funtzionamendu eta errendimendu perfektua lortzeko, haren aldi behingo garbiketa-lanak barnean hartuta, eta hori guztia, Kanpoko argiteria-instalazioen efizientzia energetikoari buruzko Erregelamenduaren EA-06 Instrukzio Tekniko Osagarri jarraikiz.

P3 prestazioa - Erabateko bermea: mantentze-lan kolektiboak. Instalazioetan hondatutako elementu guztiak konpontzea eta, beharrezkoa bada, ordeztzea, baldintza teknikoan agiri honetan *erabateko berme* modalitatean arautzen den moduan.

P4 prestazioa - Kanpoko argiteria-instalazioak hobetzeko eta berritzeko obrak:

Prestazio horren barnean hartuko dira, derrigorrezko gutxienezko gisa, energia kontsumitzen duten instalazioak hobetzeko eta berritzeko egin beharreko inbertsio guztiak (baldintza teknikoan agiri honi erantsitako auditoretzaren dokumentuan bildutako zehaztapenetan daude jasota haiek), energia erreaktiboa ezabatzeko eta/edo konpentsatzeko instalatu beharreko aparatuen hornikuntza, instalazioa, abiaraztea eta behin-behineko harrera barnean hartuta.

Zerrendatutako prestazioez aparte, kontratu honen bitartez efizientzia energetikoaren hobekuntza sustatu nahi da, energia aurrezteko, energia efizientziaz kontsumitzea eta energia berriztagarriak erabiltzea sustatzen duten ekipoen eta instalazioen bidez.

Esleipendunak aztertu, proposatu, egitaritu eta finantzatu beharko ditu instalazio horiek, energia berriztagarriaren aurrezkien edo salmentaren bitartez, betiere kontratuaren indarraldiak dirauen bitartean, eta ez dute inolako eragin ekonomikorik izango kontratu honen aurrekontuan.

Kontratutako Zerbitzu Energetikoen Enpresak (aurreratzean, ZEE) izango du prestazio haiek emateko ardura, eta Udalak ikuskapen-egitura teknikoa baino ez du izango, planak ezartzeko, lanak koordinatzeko, lanak egin direla kontrolatzeko eta, oro har, prestazioak Udalaren eskakizunak betetzeko egoeran daudela egiaztatzeko eta bermatzeko.

2.- JARDUN-EREMUA

Kontratu honen eraginpeko ekipoa eta instalazioak RENER S.L. konpainiak 2016an egindako Zestoako Argiteria Publikoaren Energia Diagnostikoa bildutakoak dira. Kontratuaren eraginpeko argiteria publikoaren aginte-panelen zerrenda, argi-puntuak, luminariak, lanparak, pizte-ekipo osagarriak, eta erregulazio- eta kontrol-ekipoak dokumentu hartan daude jasota (C eranskina).



ZESTOAKO UDALA

Kontratu honen jardun-eremua Zestoako Argiteria Publikoaren Sare osora zabaltzen da; hots, aginte-panel guztiak eta haien parte diren edota haien funtzionamenduan parte hartzen duten elementu guztiak hartzen ditu barnean, hala nola konpainia banatzailearen hargunea eta aginte-paneletatik abiatzen diren linea-irteerak. Horretaz gain, hauek ere hartzen dira kontratu honen jardun-eremuaren barnean: aginte-panelen eta instalazioak babesteko edota korrontearen hornikuntza aldatzeko argi-puntuaren arteko aparatu elektriko eta elektronikoak; lanparen pizketan parte hartzen duten ekipo osagarriak; lanparak, luminariak eta lur-harguneak.

Lizitatuzaileek instalazioak ezagut ditzaten, Zestoako Udalak egun jakin bat ezarriko du instalazioak ikustera joan daitezen; eskaintzak aurkezteko egunaren biharamunetik aurrerako edozein egun izango da egun hori, eta Udalaren webgunean (kontratatuzailearen profilean) jakinaraziko da zehazki zein izango den.

3.- BALDINTZA OROKORRAK

Enpresa esleipendunak argiteria publikoaren instalazio osoa onartzen du kontratuaren formalizazio-eguneko baldintzetan eta, horrenbestez, instalazio horren arduraren hartzen du bere gain, agiri honen zehaztapenen arabera. Horri dagokionez, esleipendunak adierazten du honako hauen jakinaren gainean dagoela:

- Kontratu honek eraginpean hartzen dituen Zestoako argiteria publikoaren instalazioen kokapena eta ezaugarriak.
- Kudeatu behar dituen instalazio eta ekipo guztien egoera.
- Instalazioen segurtasunarekin eta espezifikotasunarekin lotutako sarbide-baldintza zehatzak.

Egungo INSTALAZIOA onartzeak, zer motatakoa den, zer egoeratan dagoen eta zer kalitatekoa den alde batera utzita, jada dauden elementuak mantentzera behartzen du, elementu horiek ordeztu gabe, baldintza teknikoaren agiri honetan zehaztutako kasuetan izan ezik, eta betiere Zestoako Udalak horretarako baimena eman badiu aldez aurretik

Horrenbestez, eskaintza idatzi baino lehen, lizitatuzaileek derrigorren egin behar dute egungo instalazioen argazki-erreportaje bat eta azterlan bat, haien egoera kontuan har dezaten; horretarako, instalazioetan sartzeko baimena eskatu ahalko diote Udalari, betiere haien funtzionamenduari eragiten ez badiote.

Udal-teknikariek lagunduta instalazioak ezagutzeko, instalazioetarako bisitaldi gidatu baterako deialdia egingo die Udalak; bisitaldi hartarako eguna Udalaren webgunean argitaratuko da, kontratatzailearen profilean. Eskaintzarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuen artean, Administrazio Baldintzen Agiriaren B klausularen A.5 zenbakian jasotakoa ere aurkeztu beharko dute.

3.1.- Instalazio berriak

Kontratu honen indarraldiak dirauen bitartean, ZEEk bere gain hartuko ditu Udalak egindako edo hirugarrenengandik jasotako argiteria publikoko instalazio guztiak, eta dagokion zerbitzua eman beharko du, kontratu honetan zehaztutakoaren eta adostutako prezioen arabera.

ZEEk bere kontura berrikusiko ditu hirugarrenek egindako argiteria publikoko instalazio berriak, Udalak jaso baino lehen, eta instalazio horien ontasunaren edota atzemandako gabezien berri emango dio Udalari. Instalazioak ez badu betetzen udal-proiektuen erredakzioan eta udal-obren



ZESTOAKO UDALA

egikaritzean aplikatu beharreko Baldintza Teknikoen Agirian zehaztutakoa, ZEEk ez-betetze horren berri eman beharko du, arduradunek egokitzapen-obrak egin ditzaten.

ZEEk onartu egin beharko du Udalak jakinarazitakoa eta, hala badagokio, instalazioa bere gain hartu beharko du, dauden egoeretan eta Agiri honetako zehaztapenekin bat etorrita. Instalazio berri horien eroanbidearengatik eta kontserbazioagatik Udalak ZEEri ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, kontratuan jasotako kostuen araberrako proportzioan kalkulatu da aurreikusitako areagotzearen kostua.

Instalazio berri horien berme-epeak dirauela, ZEEk instalazio horien gorabeheren berri emango du, esanbidez eta banan-banan.

3.2.-Etorkizuneko instalazioak eta aldaketak

Behin betiko instalazioetan nahiz behin-behinekoetan erabilitako materialek bat etorri beharko dute ezarritako baldintza teknikoekin, eta argien maileri eta uniformetasunari buruz adierazitako guztia ere bete beharko da.

Kontratuaren indarraldiak dirauen bitartean Zestoako Udalak irizten badu instalazioaren elementuak aldatu behar direla edota bestelako sistemak ipini behar direla, ZEEk derrigorren hartu beharko du haiek kontserbatzeko lana, alderdiek aldeztu aurretik ezartzen eta onartzen badituzte dagozkien prezio kontraesankorrak, eta betiere kanpoko argiteria publikoan txertaturiko aldaketek ez badituzte kaltetzen ZEEk neurriak txertatu ondoren lortutako aurrezteak. Bestela, eta ZEEren onespeneren ondoren, aurrezte-galerak prezio kontraesankorren zerrendari gehituko zaizkio; ZEEk aurkeztutako eskaintzan jasotakoak erreferentzia gisa hartuta sortuko dira prezio kontraesankor horiek.

Kontratistak irizten badu instalazioko materialak aldatu egin behar direla bilakaera teknologikoak gomendatzen duelako, eskaera horren berri eman beharko dio Zestoako Udalareri, eta Zestoako Udalak eskabide hori aztertu eta ez badu baimentzen, aldaketa horiek ezin izango dira egin. Instalazio berriek, lehendik zeudenen areagotzeak eta aldaketek (hala badagokio) araudi hauek bete beharko dituzte; Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa, Kanpoko argiteria-instalazioen efizientzia energetikoari buruzko Erregelamendua eta udal-araudia.

3.3.- Erregelamendua betetzea

Kontratu honek bildutako lanen ondoriozko prestazio guztiak gauzatzean, ezinbestean bete beharko da indarreko araudi tekniko eta segurtasun- eta higiene-araudi osoa, baita instalazioen ezaugarriengatik eta kontratu honen bidez onartutako prestazioengatik aplikatzekoa den araudia ere.

Funtsean, honako hauek betetzen direla hartuko da kontuan: lehenik, Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa eta haren instrukzio tekniko osagarriak, bereziki, BT 09 (kanpoko argiteria-instalazioei buruzkoa da, eta haien segurtasuna bermatzeko agindu tekniko espezifikoak biltzen ditu); bigarrenik, Kanpoko argiteria-instalazioen efizientzia energetikoari buruzko Erregelamendua eta eta haren instrukzio tekniko osagarriak (EA-01etik EA-07ra bitarte); hirugarrenik, energiaren hornitzearen duen enpresaren indarreko arau zehatzak, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak onetsiak, ekipoen homologazioetan eta dispozizio elektrikoetan eragina izan ditzaketen banaketa elektriko lineei buruzkoak; eta azkenik, Zestoako Udalen Hiru Antolamenduko Plan Orokorra eta haren udal-ordenantzak.

Honako xedapen hauek hartuko dira kontuan:

- **Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa** (abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua)



ZESTOAKO UDALA

eta, zehazki, BT 09 instrukzio tekniko osagarria; kanpoko argiteria-instalazioei buruzkoa da, eta haien segurtasuna bermatzeko agindu tekniko espezifikoak biltzen ditu.

- **Kanpoko argiteria-instalazioen efizientzia energetikoari buruzko Erregelamendua** (azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretua), haren eranskin gisa txertatutako instrukzio tekniko osagarrien barnean hartutako aginduekin eta arauekin (bereziki, EA-01etik EA-07ra bitarteko instrukzio tekniko osagarriak).
- **Kalitate eta segurtasun industrialerako azpiegituraren erregelamendua** (abenduaren 29ko 2200/1995 Errege Dekretua), eta bereziki, agindu teknikoak betetzen direla dokumentu bidez frogatzearekin lotutako guztiari dagokionez; zehazkiago, ENAC entitateak bermatutako laborategien ziurtagirien bidez, eskatutako entseguen kasuan, eta AENOR erakundearen AEN-CTC-007 ziurtagiriaren komite teknikoak onetsitako laborategien ziurtagirien bidez, luminarien, lanparen eta loturako ekipoen entseguen kasuan.
- **Industriaren uztailaren 16ko 21/1992 Legea**; zehazki, haren 20. artikulua 6. Zenbakia; horren bidez, produktu normalizatuak erostea bultzatzera derrigortzen dira administrazio publikoak.
- **AENOR edo UNE erakundeen arauak edo espezifikazioak**, bai 3 erregulazio-sistemei bai kanpoko argiteriako luminariei eta haien euskarrii buruzkoak.
- **CEI Argiteriaren Espainiako Komitearen eta IDAE Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren gomendioak**; Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari atxikita dago IDAE Enpresa Erakunde Publikoa; gomendio horiek Cuadernos de Eficiencia Energética en Iluminación aldizkariaren 5. zenbakian ("Sistemas Eficientes de Regulación y Control en Alumbrado de Exteriores" izenekoan) argitaratu ziren.
- **LED teknologia duten kanpoko argiteriaren luminarietarako betebeharrak teknikoak, CEI Argiteriaren Espainiako Komitearenak eta IDAE Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuarenak.**

ZEEK kontratuaren barnean hartutako instalazioak legearen barnean egon daitezzen lortzeko behar diren izapide guztiak egiteko ingeniari-taldea guztia ekarriko du, Zestoako Udalarik inolako kostu osagarriarik ekarri gabe.

Aparatu elektriko eta elektronikoetako hondakinei buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretua betearazteko, ZEEK hitzarmen bat sinatuta izan beharko du (baita haren egiaztagiriak aurkeztu ere), errege-dekretu horren I. eranskineko kategoriaren barnean hartutako argiteria aparatuen (argi-iturriak, luminariak eta aparatu gehigarriak) hondakinak kudeatzeko sistema integraturako.

Halaber, ZEEK modu sinesgarri batean frogatu beharko du baztertutako lanparak eta/edo luminariak halako eragiketarako egiteko baimena duen birziklapen-instalazio batera eramaten dituela. Bestalde, lanparak instalazio horietara LER 200121 kodea duen Hondakin Arriskutsuen Kudeatzaile Baimendu baten bitartez eramango direla justifikatuko da; horretaz gainera, birziklapen-instalazioan hondakinak sartu direlako ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

3.4.- Dokumentazioa

Kontratuaren iraunaldian Zestoako udalerriri buruz sortutako dokumentazio guztia gorde beharko du ZEEK, eta Zestoako Udalarik entregatu beharko dio dokumentazio hori kontratuaren iraunaldia amaitzen denean, betiere formatu digitalean. Hala ere, egindako txostenen, ziurtagirien eta sorturiko bestelako dokumentuen kopiak entregatu beharko ditu ZEEK aldi berean.



ZESTOAKO UDALA

Zestoako Udalak edozein unetan eskatu ahalko dio ZEEri dokumentazio hori, baita hartarako sarbidea izan ere.

4.- INSTALAZIOAREN ERABILERA-LAGAPENA ETA KONTSERBAZIOA

Kontratu honen bitartez, Zestoako Udalak INSTALAZIOAREN erabilera eta kontserbazioa lagatzen dizkio esleipendunari (ZEEri); ZEEK, bere aldetik, ondoren zehaztutako baldintzetan onartzen du lagapen hori.

Kontratu hau sinatzen duenetik aurrera, INSTALAZIO hori kontuz eta arretaz erabiltzeko eta ustiatzeko ardura eskusiboa zango du ZEEK; Zestoako Udalak ezarritako eragiketa- eta mantentze-jarraibideen arabera baliatu beharko du instalazioa, erabilera- eta funtzionamendu-egoera perfektuan mantentzeaz gain. Horrenbestez, eginkizun horietan utzikieriaz edo zabarkeriaz jardutearen ondorioz zerbitzu publiko hari eragindako edozein kalteren arduradun bakarria izango da ZEE.

INSTALAZIOAK kontratu honetan aurreikusitako erabilera eskusiboa izango du eta ezin izango da beste ezertarako baliatu.

INSTALAZIOA erabiltzeagatik, ustiatzeagatik, mantentzeagatik, kontserbatzeagatik eta konpontzeagatik (konponketa ohikoak nahiz apartekoak) INSTALAZIOAK behar dituen gastu guztiak ZEEK ordaindu beharko ditu.

Kontratu honen indarraldiak dirauela, ezin izango dira INSTALAZIOA osatzen duten elementuak eta zatiak aldatu, narriatu, ezabatu, kendu eta/edo hondatu, Zestoako Udalaren barnean kontratu honen ardura duen pertsonaren aurretiko eta esanbidezko onespenerik gabe.

5.- ANTOLAKUNTZA ETA ZERBITZU OROKORRAK

5.1.- Zerbitzuaren funtzionamenduari eta antolakuntzari buruzko oinarritzko plana.

Lizitatuzaileek zerbitzuaren funtzionamendu-plan bat aurkeztu beharko dute, eta hau zehaztu beharko dute bertan:

- Zuzeneko langileek (hots, zerbitzurako aukeratutakoek) eta sor litezkeen premiak betetzeko langileek osatutako multzoaren **organigrama** xehatua eta atxikitako langile guztien zerbitzu-ordutegiak.
- Maila guztietan aurreikusitako **kategorien zerrenda**, bakoitzari dagozkion eginkizunak bilduta.
- **Ibilbideen eta kontrol-baliabideen eragiketa-plangintza**. Lan-talde bakoitzerako programatutako lanak eta lan haietarako ordutegiak xehatuko dira, baita haien plangintza ere.
- Aurreikusitako **ibilgailuen eta baliabideen** zerrenda.
- Kontratuaren **abiarazte-egutegia**.

Zerbitzua ongi ematen ari dela kontrolatzeko, enpresa esleipendunak kontratuaren ordezkari bat hautatuko du, argiteriako teknikari espezialista bat (titulazioa: ingeniaria, teknikaria edo antzekoa), udalen batekin hizketakide baliodun gisa jardun izan dela frogatu dezakeena.

Arduradun hori hizketakide balioduna izango da zerbitzuaren aurkezpenerako, eta aldian behin bertaratuko da Udalera, baita hark joateko eskatzen dion bakoitzean ere, zerbitzuaren gorabehera nagusiak konpontze aldera.



ZESTOAKO UDALA

Kontratuaren arduradunak estaldura handiko telefono mugikor bat izango du, edozein unetan harekin harremanetan jartzea erraza izan dadin.

5.2.- Langileak eskuragarri egotea

Kontratistak une oro izan beharko du agiri honetan jasotako lan guztiak egiteko behar adina langile, eta langile guztiak lan horiek egiteko egoeran egon beharko dute.

Kontratistak zerbitzuaren organigrama oso bat aurkeztu beharko du bere eskaintzan, zerbitzua nola eman nahi duen zehaztuta, plantilla behar bezala espezifikatuta, eta langile bakoitzak zer lanpostu izango duen adierazita. Langileek lanaldi osoan edo partzialean eman ahalko dute zerbitzua.

Hasiera batean, kontratistak eskaintzan ezarritako organigraman eta plantillan aurreikusitako langile guztiak izan beharko ditu, eta ez da onargarria izango zerbitzuko plantilla osorik ez izatea hirurogei egun baino gehiago kontratuaren indarraldiak dirauela.

Kontratuaren indarraldia hasi zenez geroztik bi hilabete igaro badira eta esleipendunari iruditzen bazaio organigrama aldatu egin beharko litzatekeela (aldi baterako edo behin betiko) zerbitzuaren premietara hobeki egokitzeko, Udalarari proposatuko dio aldaketa hori eta, edonola ere, Udalak hartutako erabakia onartu beharko du.

Nolanahi ere, kontratistak agiri honetako zehaztapenak derrigorrean bete behar dituzenez, plantillan aurreikusitako langileekin ezin badu egin aurkezpena kontratuan ezarritako kalitatearekin, ezinbestean areagotu beharko du plantilla, eta horrek ez dio ahalbidetuko bere eskaintzako prezioak aldatzea.

Baldintza orokorrak: kontratistak organigraman aurreikusitako langileak izango ditu eskuragarri agiri honetan bildutako baldintzak behar bezala betetzeko; gainera, haien ordainsariak, pizgarriak, aparteko ordainsariak, gizarte-aseguruak eta abar ordaindu beharko ditu, eta horiek guztiak bat etorri beharko dute indarreko legeriarekin eta eraginpean hartzen dituzten hitzarmen kolektiboetan ezarritakoarekin.

Udalak legezko erregelamenduak betetzen ari direla kontrolatzeko informazioa eskatzen badio, kontratistak informazio hori guztia eman beharko dio.

Zerbitzuburua edo/eta ingeniaria, teknikaria edo antzekoa: esleipendunak arduradun bat eta/edo erdi-mailako edo goi-mailako teknikari bat izendatu beharko du, kontratistaren eta Udalaren arteko zerbitzuaren inguruko arazoetarako baliozko hizketakide bakarra izan dadin. Hizketakideak zerbitzuaren gaineko arazoei buruz hitz egiteko bileretara joan beharko du.

Dokumentazioa: zerbitzuari atxikitako kontratako langile guztiak identifikazio-txartel plastifikatu bat (kontratistak eman beharko diena) eraman beharko dute gainean.

Laneko Arriskuen Prebentzioa: lizitatzen duten enpresek betebehar guztiak egunean izan behar dituzte, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean, Prebentzio Zerbitzuen erregelamenduan eta laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako gainerako erregelamendu berezietan ezarritakoaren arabera.

Arestian aipatutakoa frogatzeko, enpresa lizitatzailerak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du eskatzen zaionean:

1. Enpresan prebentzioa kudeatzeko txertatutako sistemaren laburpena; inoren prebentzio-zerbitzuaren kontratua (hala badagokio); eta egin beharreko lanetarako eta azpikontratazioetarako izendatutako pertsonen kopurua. Eskaintzarekin batera aurkeztu



ZESTOAKO UDALA

beharko da laburpen hori.

2. Segurtasun- eta osasun-plana; laneko arriskuen prebentzioko teknikari baten izendapena; ZEEen parte hartuko duten langileen gaitasun-ziurtagiri medikoak; langileek prebentzio-alorrean jasotako prestakuntzaren ziurtagiriak; ibilgailuak eta makineria baliatzeko gaikuntzak. Kontratuaren zuzendaritzan aurkeztu beharko dira agiri horiek guztiak, hura ustiatzen hasi baino lehen.

Gaur egun horrelako lanetarako erabiltzen diren istripuetarako segurtasun- eta prebentzio-elementuez hornituko ditu kontratistak langile guztiak; halaber, langileek babesgarri horiek benetan erabil ditzatela lortzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu kontratistak; izan ere, kontratista izango da kontratako langileek izandako laneko istripuen arduradun bakarra.

Organigramari, gutxieneko langileei, bitartekoei eta abarrei buruzko informazio guztia erakundearen deskripzio-memoria batean jaso beharko da, eta lizitatzailleak eskaintzan aurkeztu beharko du memoria hori.

5.3. Ekipoak izatea

Kontratistak ezinbestean izan beharko du agiri honetan zehaztutako eskakizunak betetzeko ekipamendua. Zehazki, hauek eduki beharko ditu: neurgailuak; langileek erabili beharreko elementu eta erreminta guztiak; ibilgailuak; erosi beharreko ekipoak, dela zerbitzuaren dinamika funtzional eta operatiboaren eta argi-puntuaren kopurua areagotzearen ondorioz dela kontratuaren indarraldiak dirauela sortutako eta bete beharreko bestelako premien ondorioz.

Kontratistak kontratuan jasotako helburuak betetzeko bitarteko material eta mekaniko guztiei eutsi beharko die.

Zestoako Udalak nahi duenean egiaztatu eta berrikusi ahalko du ekipoa, betiere horrek ez badu zerbitzua oztopatzen edo horrek ez badu eragin negatiborik haren kostuan; horrenbestez, kontratistak eskatzen zaion guztia egin beharko du berrikuspen hori eraginkortasunez eta bizkor gauzatu dadin.

Kontratistak ondoren adierazitako ekipoa eduki beharko du gutxienez, eta ekipo hori ikuskapen edo egiaztapen guztietan baliatu beharko da.

- Isolamendu- eta lur-neurgailua.
- Kurrika volt-amperemetrikoak eta fase-amperemetrikoak langile guztientzat.
- Voltmetro-amperometro erregistratzailea.
- Tentsio-erregistratzailea.
- Intentsitate-erregistratzailea.
- Sareko harmonikoen analizagailua.
- Lurpeko kableen jarraitutasun-detekttagailua.
- Iluminantzia-neurgailu kalibratua.
- Kamera termografikoa.
- Laser-telemetrya.
- Luxometro erregistratzailea.

Neurgailu guztiak erabilera-egoera perfektuan egon beharko dute, eta ZEEK aldiaren behin begiratu beharko ditu, neurketa egokiak egiteko moduan daudela bermatzeko, betiere errore onargarriekin, tresna motaren arabera. Iluminantzia-neurgailuak behar bezala kalibratuta egon beharko du, eta erakunde independente batek egin beharko du kalibrazio hori.

Gainera, ZEEK honako hauek ere izan beharko ditu:



ZESTOAKO UDALA

- Erremintak, eskailera, etab. ZEEk derrigorrean hornitu beharko ditu langileak segurtasunez, kalitatez, eraginkortasunez eta jardunbide egokiei jarraikiz lan egiteko behar diren erremintez.
- Transmisio-sistema egokia, udalerrri osoan ondo entzuteko eta emititzeko modukoa. Eskaintzan, ZEEk xehetasunez deskribatuko du eskaintako komunikazio-sistema.

Lizitatzailleak eskaintzan aurkeztuko duen zerbitzu-antolamenduari buruzko memorian zorrotz deskribatu beharko dira makineria, ekipoak, etab.

5.4.- Garraio- eta jasotze-baliabideak

ZEEk beharrezko ibilgailuak izan beharko ditu; horretaz gain, kontratuan eskatutako prestazioak ahalik eta bizkortasun handinez eta bai herritarrei bai bide publikoen (eta, hala badagokio, eskaintzan adierazitako elementu guztien) erabiltzaileei ahalik eta eragozpen gutxien eraginez egitea ahalbidetu beharko dute ibilgailu horien ezaugarriek. Garraio-baliabideen hornikuntzak egokia eta nahikoa izan beharko du; hala, garraio-baliabideek behar adinako premiaz garraiatu beharko dituzte materialak, bitarteko osagarriak, teknikariak eta langileak; gainera, instalazioen zainketa egokia izateko aldi behin egin beharko diren ikuskatzeak erraztu beharko dituzte. Eskaintzan, ibilgailu arinen, ibilgailu astunen eta plataforma jasotzaileen (potentzia eta altuera) zerrenda bat jaso beharko du ZEEk, horien guztien ezaugarriak xehatzeaz gain. Horretaz gain, haietan instalatutako komunikazio-tresnak ere deskribatu beharko ditu.

Lizitatzailleak xehetasunez justifikatu beharko du eskaintzan zenbat ibilgailu eskaintzen dituen zerbitzua emateko. Horri dagokionez, honako ibilgailu hauek dituela bermatu beharko du, gutxienez:

- Plataforma jasotzailea, 12 metrotik gorako altueretarako, iristeko zailak diren tokietan lanak egitea ahalbidetzen duena.
- 14 metroko edo hortik gorako tokietara iristen den saski-kamioia, GPS eta komunikazio-sistemarekin.

5.5.- Tokia eta ordezeko piezen stocka izatea

Argiteria publikoaren kontserbazio-zerbitzu on bat emateko, ZEEk lokal edo biltegi bat izateko proposamena islatu beharko du bere eskaintzan (Administrazio Baldintzen Agiriaren D.7.1.7 klausula), baita bulegoetarako toki bat, materialetarako biltegi bat, langileentzako bulegoak, ibilgailuetarako aparkalekuak eta abar izateko proposamena ere, edozein larrialdiri alait lasterren erantzuteko eta beharrezkoak ez diren joan-etorrietan denbora gehiegi ez galtzeko. Horretaz aparte, edozein istripu edo matxurari aurre egiteko eskuragarri duen stocka justifikatu beharko du ZEEk.

5.6.- Administrazio-zerbitzuaren informazioa

Aldian behin, atzemandako eta konpondutako gorabeheren komunikatu bat entregatuko dio kontratistak Zestoako Udaleko dagokion arduradunari; komunikatu horretan gorabeheraren xehetasun hauek bildu beharko dira: gorabeherak zenbat argi-puntutan izan duen eragina, zer motatakoa izan den, zer egunetan atzeman zen eta zer egunetan konpondu zen.

Kontratistak **datu-base** bat eduki beharko du, eta kanpoko argiteria publikoa osatzen duten instalazioen inbentario bat bildu beharko du datu-base horrek:

- Argi-puntuen eta maniobra-panelen kokapena, deskribapena eta argazkiak.



ZESTOAKO UDALA

- Kale bakoitzeko instalazioen energia-kalifikazioak.
- Panelen eta argi-puntuen kodeak.
- Egiteke geratzen diren lanak: Atzeman diren eta konpontzeke geratzen diren matxurak, eta egiteke geratzen diren prebentziozko kontserbazio-prozesuak.
- Argi-puntu bakoitzaren fitxa, matxura-historiarekin.
- Prebentziozko kontserbazio-eragiketak.
- Maniobra-panel bakoitzaren fitxa, haien historiarekin.

Halaber, kontratistak **udalerrriaren plano digitalizatu** bat ere izan beharko du; plano hartan, argiteria-instalazioak (aginte-panelak, argi-puntuak eta zirkuituak) grafikaturatuta jaso beharko ditu, inbentarioko datu guztiak ere biltzeaz gain. Azpiegitura zer gunetan kokaturatuta dagoen ere adierazi beharko da plano horretan, geroagoko jardunak behar bezala planifikatzeko eta planoaren gainean aurretiaz sortutako gorabehera guztien kokapenak adierazteko.

Instalazioen harrera Sistemak instalazio berriak txertatzea ahalbidetu behar du, aplikatu beharreko araudiak betetzen direla egiaztatzeaz gain eta, araudiak betetzen ez badira, konpontze-txostenak sortzeaz aparte; instalazio berriak behar bezala hartzea da betebeharraren xedea.

Datu alfanumerikoak (datu-basea) **datu grafikoekin** (kartografia) **erabat elkartzea**

Datu-basearen eta plano digitalizatuaren mantentze-lanak kontratistaren kontu egongo dira.

Behin P4 prestazioa amaituta dagoela, plano digitalizatua eta datu-basea (kanpoko argiteria publikoaren inbentarioa biltzen dituen) pantailan eta inprimagailuan kontsultatzea ahalbidetzen duten programak entregatu beharko dizkio kontratistak Udalari.

Lizitatuak fitxen eta zerrenden ereduak aurkeztu beharko dituzte.

5.7.- Instalazioen inbentarioa sortzea

Behin P4 prestazioa amaituta dagoela, argiteria publikoko instalazioen inbentario informatizatu bat entregatu beharko du kontratistak, baita maniobra-koadroak eta argi-puntuak islatzen dituen plano digitalizatu bat ere. Zehazki, argiteria publikoaren sare osoaren kartografia bat entregatu beharko du, dauden argi-puntu guztiak (kode-zenbakiekin) eta maniobra-aginte denak (kode-zenbakiekin) zehaztuta. Lan hori errazte aldera, Udalak agiri honetan zehazturiko planoen informazio digitalizatua (DGN, DWG, eta DXF formatuetan) emango dio.

5.8.- Energia-kudeaketa

Efizientzia energetikoarekin lotutako jardunak egin ondoren lortutako aurrezteak egiaztatzeko gaitasuna izan beharko du kontratistak proposatutako sistemak, konpainiak emandako fakturak hasiera batean egindako kalkuluekin alderatuz. Horrenbestez, fakturazio-datuak txertatu eta energia-kostuak kalkulatzeko ahalbidetu behar du sistemak, aurrekontuak egiteko.

5.9.- Zaintza-zerbitzua

Etengabeko zaintza-zerbitzu bat egongo da, egunean 24 ordukoa eta jaiegunetan ere jardunean egongo dena, urte osoan egun bat ere zerbitzua zaindu gabe gera ez dadin.

Zaintza-zerbitzuko langileek esku hartzeko ibilgailuak eta materialak izan beharko dituzte.



ZESTOAKO UDALA

ZEEk izango du eguneko argirik gabeko orduetan edo jaiegunetan gertatutako anomalien ondorioz egin beharreko lan-programa ezartzeko ardura, alboko argi-puntuetan eragina duten matxurak konpontzeko, Udalak edota Udaltzaingoak emandako jarraibide espezifikoak betetzeko eta honako hauek saihesteko (garrantzitsuenetik lehentasun txikienera daude zerrendatuta): pertsonen edota gauzen aurkako arriskuak, instalazioaren narriadura larriak, oztopoak trafikoan.

Horretaz gain, ZEEk enpresako teknikariei, Udaleko teknikariei, Udaltzaingoiari, energiaren hornitzen duen enpresari eta abarri anomalia horien guztien, haien kausen (ezagunak badira) eta abarren berri eman beharko die.

6.- INSTALAZIOAREN ENERGIA-KUDEAKETA. – P1 PRESTAZIOA

P1 prestazioan jasotako INSTALAZIOAREN energia-kudeaketaren barnean hartuko da haren egokitzapena, zaintza eta kontrola eta haren funtzionamendurako behar den energia-hornikuntza.

6.1.- Energia-hornikuntzaren fakturak eta ordainketak kudeatzea

ZEEren ardura izango da INSTALAZIOAREN funtzionamendu eta erabilera normala bermatzeko behar den elektrizitatearen hornikuntza; horretarako, behar diren abonu-poliza guztiak kudeatuko ditu eta energia elektrikoa ordainduko du, hura merkaturatzen duen konpainiarekiko banku-helbideratzearen bitartez.

Horretarako, kontratu hau sinatu eta astebeteko denbora-tartean, ZEEk modu fede-emailean jakinarazi beharko dizkio elektrizitatez hornitzen duen egungo konpainiari INSTALAZIOAREN elektrizitate-kontsumoaren faktura helbideratzeko banku-datuak, bai eta idazkiaren kopia bat Zestoako Udalean kontratuaren ardura duen pertsonari igorri ere. Ildo horretan, esleipenduna izango da energia erosteko kontratuen titularra, eta hark formalizatu beharko ditu energia elektrikoa merkaturatzen edo banatzen duten enpresekin, astebeteko epe horren barnean. Instalazioaren titulartasun-aldaketa horren ondorioz kontsumoko fakturazio-desorekaren bat sortzen bada, kontratuko prezioaren arabera hainbanatuko da.

Kontratu horrek dirauela, ZEEk derrigorrean gorde beharko ditu hornikuntza elektrikoaren faktura guztiak. Denbora-tarte horretan, Zestoako Udalak faktura horiek eskuratu ahalko ditu, beharrezko datu guztiak kontsultatzeko aukera izan dezan.

ZEEk aginte-panel bakoitzaren fakturazioaren hileroko erregistro banakatu bat izango du. Erregistroari kontratuak dirauen bitartean eutsiko dio ZEEk, eta Zestoako Udalari entregatuko dio kontratua amaitzen denean.

ZEEk INSTALAZIOAREN elektrizitate-hornikuntza edozein konpainia hornitzailearekin negoziatu eta kontratatu ahalko du. Kontratazio berri hori alde aurretik jakinarazi beharko zaio Zestoako Udalean kontratuaren ardura duen pertsonari.

Energia elektrikoaren hornikuntzaren kalitateari dagokionez, ZEEk emandako bermeek energia elektrikoa banatzen edo merkaturatzen duten erakundeek eta enpresek emandako bermeen berdin-berdinak izan beharko dute.

6.2.- INSTALAZIOAREN zuzendaritzaren eta zaintzaren kudeaketa

ZEEk honako ekintza hauek egiteko ardura izango du:



ZESTOAKO UDALA

- Kanpoko argiteria-instalazioak piztea eta itzaltzea.
- Beharrezko erregulazioak.
- Ekipoen funtzionamendu-parametroei eta ekipoen funtzionamendu egokia egiaztatzeko entseguetara eta maniobretara jarraipena egitea.
- Instalazioen zaintza orokorra.
- Erronda eta ikuskapen arruntak.

ZEEren esku egongo da INSTALAZIOA piztea eta itzaltzea, Industria Ministerioak argitaratutako funtzionamendu-ordutegiaren arabera garai bakoitzean (eguzki-irteerak eta eguzki-sarrerak), energia-optimizazioa lortzeko, eta ez da onartuko ordutegi hartatik bost bat minutu baino gehiago desbideratzea. Horretaz gain, argi-fluxuaren mailaren murriztapena abiarazteko prozesua ere horrelaxe kudeatuko da.

Kontratua hasi eta bi asteko epearen barnean, INSTALAZIOA pizteko eta itzaltzeko sistemen artean desbideratzerik ez dagoela egiaztatu beharko du ZEEK, eta desbideratzerik atzematen bada, zuzendu egin beharko du. ZEEK txosten bat eman beharko du, ikuskapenaren emaitzarekin, eta Zestoako Udalean kontratuaren ardura duen pertsonari entregatu beharko dio txosten hori. Instalazioak pizteko eta itzaltzeko sistema kontrolatzeko eta argi-fluxua murrizteko, ZEEK ikuskapen- eta egiaztatze-programa bat proposatuko du, edo bestela, kudeaketa-sistema bat, funtzionamenduko edozein oker atzemateko eta zuzentzeko.

Zestoako Udalak aginte-panelak pizteko edota itzaltzeko ordutegia aldatzeko eskatzen badiu, aldatu egin beharko du ZEEK, eta aldaketa horrengatik kostuak ZEEren kargu egongo dira. Energia-optimizazioa lortzeko, Zestoako Udalak proposatutako ordutegia berrikusi ahal du ZEEK. Horretarako, eta hobekuntza-lanen parte gisa, beste ordutegi bat aurkeztu ahal du ZEEK, zerbitzuaren premiaz gabe efizientzia energetiko handiagoa dakarren beste ordutegi bat, hain zuzen ere. Martxan jarri baino lehen, ordutegi hori Zestoako Udalean kontratuaren ardura duen pertsonak onetsiko du.

Fluxua erregulatzeko sistemek argiztapen-mailak murriztuko dituzte, zerbitzu normalaren mailaren % 50eraino gehienez ere. Murriztapen hori txikiagotzeko aukera egongo da toki edo bide jakin batzuetan, betiere haietatik igarotzen den trafikoaren intentsitateak edo pertsona-kopuruak aldaketa hori justifikatzen bada.

Argi-fluxuaren murriztapena % 50etik beherakoa izate hori alderdiek (Udalak eta esleipendunak) erabaki eta negoziatu dezakete, bide-motaren arabera, okupazio- eta funtzio-dentsitatearen arabera edo halako murriztapena justifikatzen duten beste hainbat parametroren arabera.

Argiteria telematikoki (aginte-panel bidez edota puntutik puntura) kudeatzeko sistemak erabiltzeko, Zestoako Udalean kontratuaren ardura duen pertsonak onetsi egin beharko du erabilera hori. Kudeaketa telematikoko sistema horiek dela instalazioak pizteko eta itzaltzeko dela fluxu-ordutegiak erregulatzeko erabili ahal dira, ahal bada. Nolanahi ere, pizteko/itzaltzeko eta fluxuaren erregulaziorako ordutegietarako lehendik ezarritakoaz bestelako profil bat proposatzen bada, Zestoako Udalak onetsi beharko du ordutegi hori abiarazi baino lehen.

Halaber, hobekuntza gisa, zenbait argi-puntu berezitan sentsoreen bitarteko (presentziaren, mugimenduaren, abiaduraren eta abarren detektagailuak) erregulazio-sistema independenteak eta autonomoak instalatzea proposa dezake ZEEK. Argi-puntu horiek ezingo dira sekula itzali, Kanpoko argiteria-instalazioen efizientzia energetikoari buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, eta Zestoako Udalak zehaztutako gutxieneko argiztapen-mailari eutsiko diote. Kasu horietan guztietan, argi-fluxuaren emisio selektiboaren funtzionamendua (sentsorearen arabera) abiarazteko, ZEEK proposatu egin beharko du lehendik, eta Zestoako Udalean kontratuaren ardura duen pertsonaren onespena ezinbestekoa



ZESTOAKO UDALA

izango da.

6.3.- Elektrizitatea lapurtzea, besteren obrak eta bestelako kausak

Instalazioaz bestelako instalazioren bat hartara legez kontra konektatzen bada, ZEEk gertakari horien berri eman beharko dio Zestoako Udalari berehala. Horretaz gain, ZEEk deskonektatu egin beharko ditu instalazio horiek, eta alderdiek beharrezkotzat jotzen badute, Udalak lagundu egingo dio ZEEri, zerbitzu teknikoen eta Udaltzaingoaren bitartez.

ZEEk lagundu egingo dio Udalari, beharrezkotzat joz gero, egiaztatzeko beste enpresaren bat kanpoko argiteria publikoaren sareaz bestelako lanen bat egiten ari dela eta lan horrek kanpoko argiteria publikoan eragina izan dezakeela.

ZEEk berrikusi egin beharko ditu hirugarrenek egindako argiteria publikoko instalazio berriak, Udalak jaso baino lehen eta kontratu hau eragina izaten hasi aurretik, eta instalazio horien ontasunaren edota atzemandako gabezien berri emango dio Udalari.

Instalazio berri horien berme-epeak dirauela, ZEEk instalazio horien gorabeheri buruzko txostena emango du, esanbidez eta banan-banan. Txosten hori Udalera igorriko du, eta Udalak instalatzaileari abisatu beharko dio, berme-apeak dirauen bitartean berehala konpon dezan jazotako gorabehera.

Zestoako Udalak ezin izango du hirugarrenik baimendu ezein aginte-panel, kanalizazio, linea elektriko, luminaria edo euskarri edota kanpoko argiteria publikoaren sarearen parte den ezin elementu manipulatzeko, ZEEren esanbidezko onespenerik gabe.

6.4.- Funtzionamendu orokorra kontrolatzea eta kudeatzea

Aginte-panel bakoitzaren kontsumoen hileko erregistroak egingo ditu ZEEk; erregistro horietan, potentzia aktiboa eta errektiboa eta potentzia-faktorea banakatu beharko ditu; gauza bera egingo du puntako ordutegiko eta haraneko ordutegi funtzionamendu-orduekin. ZEEk kontratuaren indarraldiak dirauen bitartean eutsiko dio erregistro horri, eta Zestoako Udalari entregatuko dio aldian behingo txostenak entregatzen diren maiztasun berberaz.

Halaber, INSTALAZIOAREN argiztapen-mailen, efizientzia energetikoaren eta argi-distiraren urteko erregistroa ere egingo du ZEEk, gune bakoitzeko mailak sailkatuta, Kanpoko argiteria-instalazioen efizientzia energetikoari buruzko Erregelamenduari jarraikiz.

ZEEk kanpoko argiteria publikoko instalazioen potentzia-faktoreari eutsiko dio (0,9ko balioa) aginte- eta kontrol-panelen gutxieneko balio gisa, betiere instalazioen ezaugarriak aldatu gabe. Urtean behin, ZEEk hauen gaineko kudeaketa-txosten bat egingo du, eta ondorio esanguratsuenak jasoko ditu bertan: hornikuntza eta argiztapen-mailak, efizientzia energetikoa, gaueko argi-distira eta argi arrotza. Txosten hori Zestoako Udalean kontratuaren ardura duen pertsonari entregatu beharko dio ZEEk.

6.5.- Instalazioaren ibentarioaren eta planoen mantentze-lanak

Kontratuaren iraunaldiko lehen sei hilabeteetan, kanpoko argiteria publikoko instalazio guztien planoak sortuko ditu ZEEk, baita elementu eta ekipo guztien inbentario bat ere.

- Argi-puntu guztien zenbakiak eta kodeak.
- Argi-puntu guztiei buruzko datuak; luminarien zenbakiak, kokapenak, ezaugarriak eta



ZESTOAKO UDALA

markak; euskarrien ezaugarriak eta markak; lanparen ezaugarriak eta markak; instalatutako eroaleei buruz, eroale-moten zerrenda kuantitatiboa eta kualitatiboa; eta aginte-panelaren kokapena, nondik elikatzen den kontuan hartuta.

- Aginte-panelen inbentarioa eta eskemak; instalaturiko babes- eta kontrol-elementuen zerrenda (motak eta markak zehaztuta); linea eta zirkuitu kopurua.
- Instalaturiko argi-puntu guztien inbentarioa (bideka, sektoreka eta guztira); instalatutako potentzia; mota bakoitzeko luminariak; mota bakoitzeko euskarriak eta beste hainbat datu esanguratsu.

-

Kontratuaren iraualdiko lehen sei hilabeteak igarotzean, Zestoako Udalari planoak eta inbentarioa entregatu beharko zaizkio, formatu elektronikoa (.dgn/.dwg/.dxf formatuko planoak eta .mdb/.xls formatuko inbentarioa edo datu alfanumerikoak) eta paperezko formatuan.

Kontratuaren indarraldiak dirauela jazoeraren bat gertatzen bada eta jazoera horren ondorioz aurreko datuak aldatzen badira, ZEEk planoak, datuak, eskemak eta inbentarioa eguneratuko ditu eta Zestoako Udalean entregatu beharko ditu eguneratutako material horiek.

7.- MANTENTZE-LANAK ETA IKUSKAPENA.- P2 PRESTAZIOA

INSTALAZIOAREN mantentze-lanak eta ikuskapenak (P2 prestazioan jasotakoek) indarreko araudiari jarraitu beharko diote; izan ere, ZEEk araudi horri jarraitu beharko dio kanpoko argiteria publikoaren sarera konektatutako instalazioen mantentze-lanak, egiaztapenak eta ikuskapenak egiteko; zehazki, honako hauek izango dira eginkizun horiek:

- Aginte-panelen kontserbazioa eta mantentze-lanak, haien osagai elektrikoak eta elektronikoak barnean hartuta.
- Lurpeko eta aireko kable-lineen, konexioen, lotune-kaxen, fusible-kaxen, eta abarren kontserbazioa eta mantentze-lanak.
- Kutxatilen eta haien estalkien kontserbazioa eta garbiketa; kutxatilek behar bezala torlojututa eta berdinduta egon behar dute.
- Euskarriko edo fatxadako luminarien, lanparen eta farolen kontserbazioa, baita haien elementu guztiena ere, behar bezala funtziona dezaten. Kontserbatu beharreko elementuak hauek dira, besteak beste: luminarien inklinazioak, aingurak eta euskarriak; lanpara-etxeen torlojuak, azkoinak (behar bezala estututa egon behar dute) eta posizioa; itxitako itxitura eta juntura (egokiak izateaz gain, egoera onean egon behar dute); itxiturak; erreaktantziak; kondentsadoreak; konexioak; lanpara-etxeak; instalazio elektrikoak; falta diren elementu arruntak, baita funtzio estetiko hutsa badute ere.
- Kanpoko argiteria publikoko instalazioen harguneen kontserbazioa egoera ezin hobean.
- Kanpoko argiteria publikoko instalazioen beste edozein elementu edo ekipo, aurreko atalean bildutakoez aparte.

Hiru hilean behin, eta mantentze-lanen emaitza gisa, egindako lanei eta ikuskapenei eta gertatutako gorabeherei buruzko txosten bat igorriko dio ZEEk Zestoako Udalari.

Kalte guztiak Zestoako Udalari jakinarazi beharko zaizkio, eta hirugarrenekin loturiko kalteak, berriz, kontratistak aurrekontuan sartu eta konpondu egin beharko ditu (bere kontura), Zestoako Udalak onespena ematen ondoren.

7.1.- Prebentziorako mantentze-lanen plan bat egitea

Eskaintzan, **INSTALAZIOAREN prebentziorako eta ikuskapenatarako mantentze-lanen plan** bat egin beharko du ZEEk, indarreko araudian oinarrituta eta, zehazkiago, Kanpoko argiteria-instalazioen efizientzia energetikoari buruzko Erregelamenduan, Behe-tentsioko Erregelamendu



ZESTOAKO UDALA

Elektroteknikoan, aplikatzekoa den indarreko gainerako araudian eta energia-auditoretzaren dokumentuan (agiri honen gehigarri gisa aurkeztutakoan) emandako gomendioetan oinarrituta; ondoren aipatzen dira haiek, gutxieneko betebeharrak gisa. Plan horrek Zestoako Udalaren onespena behar du, eta kontratuaren indarraldiko lehen sei hilabeteetan lortu beharko du onespene hori. Mantentze-lanen eta ikuskapenen planean udalerriko sektore bakoitzeko lanak, aldizkakotasuna eta plangintza xehatuko dira, sektore bakoitzeko lan horiek zer egunetan hasi eta zer egunetan amaitu ziren zehazteaz gain.

Instalazioetan garbiketa-lanak egingo direla eta elementuak margotuko direla jasoko da prebentziorako mantentze-lanen planean, betiere lan horiek beharrezkoak badira. Prebentziorako mantentze-lanen planari buruzko txostenak emango ditu aldian behin ZEEk, jakiteko zer neurritan egin den aurrera plan horretan.

7.2.- Gutxieneko prebentzioko mantentze-lanak erregulazio- eta kontrol-ekipoetan

Hiru hilean behin, maniobra-paneletan eta pizteko eta itzaltzeko sistemetan dauden erloju astronomikoen funtsezko parametroak eta funtzionamendua begiratzeko, doitzeko eta erregistratzeko berrikuspen bat egingo da (erregulazioa, egokitzapena eta tara egiaztatzea). Sei hilean behin (gutxienez), tentsioa egonkortzeko eta argi-fluxua murrizteko ekipoen berrikuspenak egin beharko dira lineetako abiapuntuetan; berrikuspen horiek hauetan oinarrituta egongo dira:

- a) Ekipoari konektatutako kargak fase bakoitzerako baimendutako gehieneko intentsitatea gainditzen ez dutela egiaztatzea. Garrantzitsua da neurria hartzea beti, gerta litekeelako ekipoari konektatutako kargak areagotzea.
- b) Ekipoko sarrera- eta irteera-konexioak berrikustea eta bornak estutzea; ekipoa elikatzen duen aginte-panelaren konexioak ere berrikustea, kontaktu akastunak atzemateko.
- c) Ekipoaren funtzioak berrikustea.
- d) Lanparen hasierako abiaraztea edo pitzaraztea tentsio izendatuan edo sareko tentsioan egiten dela egiaztatzea.
- e) Deskarga atmosferikoen aurkako babesgarri guztiak egoera onean daudela egiaztatzea.
- f) Ekipoa aire konprimatu bidez garbitzea.

ZEEk atzemandako akats guztiak konponduko ditu, eta ekipoen egoerari buruzko txosten bat emango du, berrikuspenaren emaitza gisa. Txosten hori Zestoako Udalean kontratuaren ardura duen pertsonari entregatu beharko dio ZEEk.

7.3.- Gutxieneko prebentzioko mantentze-lanak maniobra-paneletan

Hiru hilean behin, bisualki egiaztatuko da maniobra-panelak egoera onean daudela eta haien funtzionamendu- eta kontsumo-parametroak (tentsioa, neurgailuak, babesgarri automatikorik ez egotea, etab.) egokiak direla.

Hiru hilean behin, funtsezko parametroak (kontsumoa eta berrikuspen termografikoa) egiaztatu eta erregistratuko dira. Garbiketa bat ere egingo da.

Urtean behin, elementu guztien berrikuspen orokor bat egingo da, desmuntaketarik gabekoa; armairua eta itxituren eta banden koipeztatzea ere berrikusiko da. Kontrol-eragiketa nagusiak hauek kontrolatzekoak izango dira:

- Maniobra- eta babes-aparatuen funtzionamendua.
- Eroaleen arteko eta eroaleen eta lurraren arteko isolamenduak egiaztatzea.
- Sarrera-tentsioa egiaztatzea.



ZESTOAKO UDALA

- Potentzia-faktorea egiaztatzea.
- Intentsitateak faseko egiaztatzea eta orekatzea.
- Linearen amaierako tentsio-jaitsiera egiaztatzea.
- Diferentzialen erantzun-testa.
- Lur-babesa neurtzea.
- Bornak berriz estutzea.
-

ZEEK ekipoen egoerari buruzko txosten bat emango du, berrikuspenaren emaitza gisa. Txosten hori Zestoako Udalean kontratuaren ardura duen pertsonari entregatu beharko dio ZEEK.

7.4. Gutxieneko prebentzioko mantentze-lanak luminarietan

Hiru hilean behin, bisualki egiaztatuko da lanparen, LEDen, hodi fluoreszenteen, erreaktantzien, pitzarazgailuen, driverren, eta gaintentsio-babesgarrien ordezkapen sistematikoko egoera (balio-bizitza agortzeagatiko ordezkapenen egoera) egokia dela.

Hilean behin, gune bakoitzeko argi-puntu guztiek gaez ondo funtzionatzen dutela egiaztatuko da eta ez dabiltzanak konpondu egingo dira.

ZEEK ekipoen egoerari buruzko txosten bat emango du, berrikuspenaren emaitza gisa. Zestoako Udalari entregatuko dio txostena.

Bi urtean behin (gutxienez), garbiketa bat egingo da, eta lehenengo garbiketa lehen sei hilabeteetan egingo da, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita. Luminariei dagokienez, karkasa, erreflektoreen barnealdea eta itxiturak ere garbitu beharko dira. Luminaria irekiei dagokionez, farolen eta globoen osagai eta elementu guztiak garbitu beharko dira. Egindako jardun guztiei buruzko txostena Zestoako Udalean kontratuaren ardura duen pertsonari entregatu beharko dio ZEEK.

7.5.-Gutxieneko prebentzioko mantentze-lanak linea elektrikoetan

Hiru hilean behin, bisualki egiaztatuko da linea elektrikoak egoera onean daudela eta haien funtzionamendu-parametroak (eta kanalizazioak eta berrikuspen termografiko orokorra) egokiak direla.

ZEEK ekipoen egoerari buruzko txosten bat emango du, berrikuspenaren emaitza gisa. Txosten hori Zestoako Udalean kontratuaren ardura duen pertsonari entregatu beharko dio ZEEK.

7.6.- INSTALAZIOAREN ikuskapenak

ZEEK bai eguneko bai gaueko ikuskapenen plan bat aurkeztuko du; plan horren bitartez, INSTALAZIOAREN funtzionamenduari ez ezik, euskarrien, armairuen, luminarien, kutxatila-estalkien, konexioen eta, oro har, argiteria publikoko instalazioen elementu edo osagai guztien egoerari ere begiratuko zaio.

Orobat, ZEEK derrigorrean atzeman beharko ditu zuhaitzietik, landarediak edo beste edozein oztopok ukitutako argi-puntu guztiak, ukitutako argi-puntu horien funtzioak nabarmen aldatzen edo murrizten ari badira.

Gunea erabat ikuskatzeko epea hiru hilabetekoa izango da, eta atzemandako gabeziak konpontzeko egindako lanen emaitzak bilduko dituen txosten bat aurkeztu beharko da Udalean egunero.

Ikuskapenak ZEEK sortutako eta Udalak aurretiaz onetsitako programa bati jarraikiz egin beharko dira.



ZESTOAKO UDALA

Zestoako Udalak edozein unetan izango du INSTALAZIOAREN erabilera, ustiaketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa ikuskatzeko eskumena. Horretarako, ZEEK derrigorrean utzi behar dio Zestoako Udalari INSTALAZIORA joaten eta, horretaz gainera, haren eskura utzi beharko ditu INSTALAZIOA ikuskatzeko beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak.

Instalazioen ikuskapen guztiak ZEEren kontura egongo dira. ZEE izango da ikuskapenen kalitatearen arduradun bakarra, eta beharrezko neurri guztiak hartu beharko ditu ikuskatzaileek ezin hobeki lan egin dezaten; izan ere, Udaleko langileek, Udaltzaingoko agenteek, gaueko zaindarien edo herritarrek atzematen badute ZEEK aurkeztutako parteak ez direla egiazkoak edo egindako prebentziozko lanek ez dutela jardunbide egokiek eskatutako gutxieneko kalitatea, zigorrak ezar diezazkioke Udalak ZEEri.

INSTALAZIOAN narriadurarik, matxurarik edo suntsipenik atzematen badu edo ikusten badu instalazioak istripuren bat eragin duela edo instalazioarekin istripuren bat jazo dela, ZEEK haren berri eman beharko dio Zestoako Udalari 24 orduko epearen barnean.

Instalazioaren egoeran atzemandako gabeziak konpontzeko lanak prebentziozko kontserbaziorako gainerako eragiketak bezala programatuko eta normalizatuko dira.

7.7.- Instalazioaren arauzko egiaztapena eta ikuskapena

Kanpoko argiteria-instalazioen efizientzia energetikoari buruzko Erregelamenduaren 13. artikuluari jarraikiz, efizientzia energetikoari buruzko xedapenak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatuko da aldian behin, abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretu bidez onetsitako Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren arabera baimendutako instalatzaileek eta erregelamendu-esparru horretarako baimendutako kontrol-erakundeek egingo dituzten egiaztapenen eta ikuskapenen bitartez.

Horretarako egutegia honako hau izango da:

- Hasierako egiaztapena, zerbitzua ematen hasi baino lehen: instalazio guztiak.
- Hasierako ikuskapena, zerbitzua ematen hasi baino lehen: 5 kW-etik gorako potentzia instalatuta duten instalazioak.
- Egiaztapenak bost urtean behin: 5 kW-erainoko potentzia instalatuta duten instalazioak.
- Egiaztapenak bost urtean behin: 5 kW-etik gorako potentzia instalatuta duten instalazioak.
-

ZEEK bere kontura egingo ditu arauzko egiaztapen eta ikuskapen guztiak, eta kontratu honen iraunaldi osoan zehar gorde beharko ditu ikuskapen- edo egiaztapen-ziurtagiri guztiak; kontratua amaitzean, azkenik, Zestoako Udalari entregatu beharko dizkio ziurtagiri horiek guztiak. Gainera, ziurtagiri horietako bat lortu bezain laster, haren kopia bat igorri beharko dio Zestoako Udalari.

7.8.- Mantentze-lanetarako zentroa

ZEEK mantentze-lanetarako zentro bat izan beharko du, eskaintzan bildutako langileez eta bitartekoez osatua. Mantentze-lanetarako zentrotzat hartzen da ZEEren giza baliabideen eta baliabide materialen multzoa, udal-teknikariekin harremanetan egoteko balioko duena eta lan-aginduak, zerbitzu-oharrak, txostenak eta abar bideratzeko erabiliko dena; laburbilduz, ZEEren eta Zestoako Udalaren arteko lotura izango da.

8.- ERABATEKO BERMEA.- P3 PRESTAZIOA

EZEak etengabe funtzionamenduan eta egoera onean gordeko ditu INSTALAZIOAREN materiala eta osagaiak, eta beharrezko konponketa edo berritzeak eginez, ahalik azkarren eta aurrez eskatu beharrik gabe, edozein izanda ere hura eragin duen arrazoia.



ZESTOAKO UDALA

Horregatik, kontratu honen xede diren instalazioetan gerta daitezkeen matxura guztiak aurkitzeko eta konpontzeko betebeharra du EZEak.

Ekintza bandalikoek, asmo txarreko gertaerek, istripuek edo antzekoek sortutako matxuren kasuetan ere EZEaren ardura izango da hura hautematea eta konpontzea. Egilearen nortasuna jakinez gero, izandako kalteen erreklamazio formalak egingo die EZEak haiei edo haien aseguru-konpainiari.

Oro har, matxurak hogeita lau ordu baino lehen konpondu beharko dira, eta aginte-zentroei eragiten dietenak, berehala, behin-behinean martxan jartzeko bada ere. Ekintza bandalikoek, hondamendi naturalek edo antzekoek eragindako matxuren konponketa handiak ahalik azkarren egingo dira.

Beste matxura-mota batzuetan, justifikatutako motiboak izanda, konponketak denbora gehiago behar badu, Udaleko Kontratuaren Udal Arduradunari jakinaraziko zaio.

Erreta, hautsita edo agortuta dauden lanpara eta ekipo guztiak berrituko dira, mantentze-zerbitzuaren prezioa handitu gabe. Matxuratuta dagoen edozein argi-puntu edo argi-fluxua bizitza balia garriaren amaierako minimoa baino txikiagoa duen edozein bajaren hurrengo 48 orduetan konpondu beharko da, edo Zestoako Udalak finkatutako epean, garrantzitsuak edo bereziak diren kasuetan.

Lanparak eta ekipo osagarriak kontzeptu horretan ordezkatzeko doazen heinean, berritze-dataren kontrola egingo da, haien iraupena kontrolatzeko.

Kontratuak irauten duen artean instalazioetako elementuak aldatu edo haien kontrolerako sistema berriak ezarriko balira, EZEak haien kontserbazioaren gaineko ardura onartu beharko du. Elementuak berritzean, jatorrizko elementuen ezaugarri eta kalitate bereko materialak erabiliko dira, eta Zestoako Udaleko teknikariek egiaztatuko dituzte, baldintza horiek betetzen ez dituzten materialak baztertzeko aukera izanik.

Gainera, mantentze- eta berritze-lanetan hartutako soluzioek inguruko instalazioen estetikari eta uniformetasunari egokিতuta egon beharko dute.

Zestoako Udalak uste badu berritu beharreko materiala zaharkituta dagoela edo uneko baldintzei ez zaiola behar bezala egokitzen, EZEari eskatu diezaiotke gaur egungo teknologiari egokitutako eta beharrezko kalitateko produktuez ordezkatzeko.

Instalazioen mantentze-lanak eta matxuren konponketak egiteko zerbitzua emateko, EZEak eguneko 24 orduetan eskuragarri egongo den ekipo bat, gutxienez, izango duen "zaintza-zerbitzu" bat ezarriko du. Ekipoak altuerako lanetarako 14 metroko eskailera hidrauliko bat duen ibilgailu bat izango du, komunikazio-sistema eta GPS gailua, desplazamenduak optimizatzen eta minimizatzen, eta horrez gain, beharrezko langileak, bitarteko teknikoak eta ordezeko elementuak ere izango ditu, edozein gorabehera berehala konpontzeko edo bide publikoko erabiltzaileentzako arriskuak edo instalazioaren hondatzeak ekiditeko beharrezko neurriak hartzeko. Ibilgailuak komunikazio-sistema duen aurrez zehaztutako lokal batean egongo dira.

EZEak Zestoako Udalari proposatuko dio zaintza-zerbitzua nola antolatuko den eta udalerraren ezaugarriak kontuan hartuta zenbat ekipo beharko diren. Udalak oniritzia eman beharko du, Kontratuaren Udal Arduradunaren eskutik.

Era berean, eguneko 24 orduetan zehar eskuragarri egongo den zaintzako telefono-zerbitzu bat



ZESTOAKO UDALA

egongo da EZEaren bulegoetan, abisuak eta erreklamazioak jasotzeko, deiak grabatzeko aukera duena, salatutako anomaliari buruzko txostena grabatzeko, eta komunikazio-sistema duena, okerra zaintzako ekipoei jakinarazteko. Udalak, egoki irizten dionean, grabatutako zintak aztertzeko aukera izango du, eta horretarako, gorde egin behar dira, Zestoako Udaleko Kontratuaren Udal Arduradunak haiek suntsitzeko aukera ematen duen arte.

EZEak erregistro elektronikoa bat sortuko du jasotako deiekin, eta han dei bakoitzaren data eta ordua, jasotako abisua eta ustezko matxura konpontzeko egindako ekintzak agertuko dira. Erregistro hori eguneratuta eta Zestoako Udalaren eskura egongo da beti.

Zerbitzu horiek urteko egun guztietan emango dira, baldintza beretan.

EZEak lurpeko matxurak detektatzeko dagokion gailua izan beharko du, matxura non gertatu den berehala jakiteko eta hiru metrotik gorako kanalizazioak egiteko beharrik ez izateko.

EZEak bide publikoa indarrean dauden Udal Ordenantzak eta Erregelamenduak aintzat hartuta seinaleztatu beharko du, edo Zestoako Udalak emandako aginduei jarraituz, betebeharrak ez betetzetik erator daitezkeen kalteen eta galeren ardura harena soilik izanik, beste edozein erantzukizun zibil edo penal alde batera utzita.

Matxura batek ondoz ondoko hiru argi-punturi edo gehiagori eragiten badie eta konpontzeko 48 ordu baino gehiago behar badira, EZEak kable-linea, osagaien ordezkioak eta abar dituen behin behineko instalazio bat jartzeko betebeharrak izango du, argiztapen normalaren %50eko leheneratze kualitatiboa eta kuantitatiboa lortzeko aukera emango duena, gutxienez. Kanpoko argiteriaren elementuak behin-behinean edo behin betiko desplazatu behar direnean, hirugarrenek hala eskatuta eta betiere Zestoako Udalak baimenduta, haien kontura egingo da eta udal-teknikarien zerbitzuek gainbegiratu dituzte.

EZE esleipendunak bide publikoan egiten diren lanek kanpoko argiteria publikoan eraginik ez izatea kontrolatu eta zaindu dezakete, jarduketa eta hura egiten duen enpresa edozein direla ere.

8.1.- Instalazioa segurtatzea.

Erabateko bermearen kontzeptuaren baitan, EZEak bere gain hartzen ditu INSTALAZIOA osatzen duten elementuen edo/eta ekipoen kalte eta galera totalen edo partzialen arrisku guztiak, suteenak edo beste edozein arrazoirekin lotutakoak barne, instalazioa mantentzea eta kontserbatzea haren ardura delako.

Horregatik, aurrez Udala jakinaren gainean egonda eta hark onartuta, aseguratutako zenbatekoetan behar adinako balioko aseguru-poliza edo -polizak ituntzeko betebeharrak izango du EZEak, gutxienez alderdi hauek behar bezala estaltzeko:

- INSTALAZIOAren arrisku orotako aseguruak.
- Besteri egindako kalteak eta erantzukizun zibila, ustiapenerako.
- Sutea, leherketa, tximista eta gehigarriak, greben eta ekintza iskanbilatsuen ondorioz sortutako kalteen arrisku hedagarriak barne, hondamen-arriskuko aseguruaren konpentsazioko partzuergoaren prima ere hartuta.

EZEak Poliza horien eta haien berritze guztien egiaztatagiriaren kopiak Udalari igortzeko betebeharrak du, formalizazio-data baino lehenago, eta azken horrek ez du aseguru-erakundeari primak ordaindu beharrik, soilik EZEaren ardura izango delako.

Arrisku horiek bermatzeko izenpetutako polizaren edo polizen onuraduna Udala izango da. Ezbeharren bat gertatuz gero, kalte-ordaina edo kalte-ordainak Udalari ordaindu beharko dizkion



ZESTOAKO UDALA

zuzenean aseguru-erakundeak.

Poliza horiek indarrean egon behar duten aldia kontratu honen iraupen-aldiarekin bat etorriko da. Poliza horiek adierazitako arriskueta batek eragindako INSTALAZIOko elementuren bat berritzeko edo haren zenbatekoa ordaintzeko urteko frankizia batez ordezkatu daitezke. Ezbehar bat izaten denean, haren larritasuna edozein dela ere, EZEak idatziz jakinarazi behar dio Udalari, aseguru-erakundeari komunikatu beharreko epe berean, eta ezbeharra zer motatakoa den, data, lekua eta zer baldintzatan gertatu den adierazi behar dio, bai eta zer motatako kalteak izan diren eta haien behin-behineko balorazioa ere.

Ezbehar bat gertatzen bada, aseguru-konpainiak Udalari emandako kalte-ordainaren zenbatekoa INSTALAZIOA berreraikitza edo konpontzera bideratuko du Udalak eta jasotako zenbatekoetatik horretarako soilik transferituko dizkio zuzenean EZEari.

EZEak bere kabuz eta bere kargura osatuko ditu ezbeharrak eragindako elementuak edo/eta ekipoak, beharrezko lanak eta seguruaren kalte-ordainak edo frankiziarenak emandako zenbatekoetan sartuta ez daudenak, beharrezkoak badira, ezbehar bat gertatuz gero, INSTALAZIOA erabat berritzeko eta berriro abian jartzeko.

Arrazoi horiengatik hondatutako elementuak ordezkatu behar direnean HOBKUNTZAK egiten badira (hau da, honelako hobekuntzak: material normalizatura aldatzea, ordezkaturako elementua halakoa ez balitz, argiztapen irekitik itxira pasatzea, etab.) eta lapurreten edo bandalismoaren eraginak ekiditeko edo minimizatzeke egiten diren aldaketak (argiztapena altuera handiagoan jartzea, zenbait babes gehigarri, leku egokiagoetara desplazatzea, etab.) Udalak ordaindu ditzake, betiere Udalaren beraren ekimenez.

9.- KANPOKO ARGITERIA INSTALAZIOAK HOBETZEKO ETA BERRITZEKO OBRAK. - P4 PRESTAZIOA

Kontratu honen helburua kanpoko argiteria publikoaren energia-kontsumoa murriztea da, energia-eraginkortasunari eta argi-kutsadurari buruzko araudiak betetzen ez dituzten instalazioak aldatuz. EZEak bere gain hartuko ditu bere eskaintzaren B gutun-azaleko B.4 dokumentuan kanpoko argiteria publikoko instalazioak hobetzeko eta berritzeko aurkeztutako Memoria Teknikoan proposatutako aurrezki-inbertsioak. Kontratuaren lehen 6 hilabeteetan egin beharko du. Berritzearen epea murriztu egin daiteke, lizitatzailleak hala eskatzen badu.

Lizitatzailleak kanpoko argiteria publikoko instalazioak hobetzeko eta berritzeko eskaintzan aurreikusten dituen jarduera guztiak barne hartzen dituen jarduera-plan bat aurkeztu beharko du, eta bertan, egikaritze-egutegiaren zehaztapenak, egikaritze-prozeduraren xehetasunak, eta bereziki segurtasunarekin eta osasunarekin eta udal-teknikariekiko eta Udaltzaingoarekiko koordinazioarekin lotutako guztia azalduko da. Plan hori Zestoako Udaleko Kontratuaren Udal Arduradunak onartu beharko du.

Material guztiak lehen kalitatekoak izan behar dute, eta horregatik, beharrezkoa izango da jardueretan P4 prestazioa sartzean proposatutako material bakoitzaren dossier teknikoa, homologazioen ziurtagiriak, ENAC entitateak emandako laborategiko ziurtagiriak (Pleguetan definitutako baldintza teknikoak betetzen dituela bermatzen dutenak) eta proposatutako materialen beharrezko informazio guztia aurkeztea. Kanpoko argiteria publikoari buruzko indarrean dauden araudiak betetzen ez duen materialik ez da erabiliko. Atal hori nabarmen baloratuko da, ordezkaturako materialen kalitateari Udalak aterako diolako probetxua, kontratua amaitu ondoren kanpoko argiteria publikoa hartzen duenean, instalazio berririk egiteko beharrik izan gabe.



ZESTOAKO UDALA

EZEak INSTALAZIO berriaren egikaritzea, abian jartzea, probak eta legeztatzea kudeatuko ditu, eskaintzan sartutako egutegia betez.

EZEak bere kabuz ikuskatuko eta gainbegiratu ditu INSTALAZIO berriaren hornidurako, muntatzeko eta abian jartzeko faseak, eta funtzionamendu-probak; eta haren ardurapean geratuko dira EZEak berak edo hornitzaileek INSTALAZIOA berritzean sor daitezkeen kalteek edo/eta galerek, zuzenekoek nahiz zeharkakoek, eragin ditzaketen erantzukizunak.

Egikaritzearen, abian jartzearen eta proben egutegia alda daiteke, EZEa eta Zestoako Udala ados jarritz gero, ezinbestean edo hasieran jarritako epeak bete ezina ekarriko lukeen ezustekoren baten ondorioz.

Zestoako Udalak INSTALAZIO berria onartuko du haren funtzionamendu zuzena eta egokia egiaztatu ondoren, ekipo bakoitzerako eta INSTALAZIO osorako proba egokiak eginez. Proba horiek EZEaren eta hornitzaileen ardurapean egingo dira, Zestoako Udaleko ordezkari bat bertan dela. Kanpoko argiztapeneko instalazioen energia-eraginkortasunari buruzko Erregelamenduan jasotako manuak betetzen direla egiaztatuko dute.

Ez da onartuko INSTALAZIO berria, funtzionamendu-probak egitean, INSTALAZIO berriaren, muntatzean, martxan jartzearen edo haren luminoteknia-neurketetan elementuek edo ekipoek edozein motatako gabezia, huts, akats edo/eta anomalia nabarmenik agertzen bada.

Probak eta neurketak egokiak direnean, Zestoako Udalak eta EZEak elkarrekin izenpetuko dute, bi aletan, INSTALAZIO berriaren Onarpen Ziurtagiria, eta horren bidez ulertuko da kontratu honetan lehen aldeak egokitzen jotzen duela burututako lana.

Onarpen Ziurtagiria izenpetu ondoren, EZEak INSTALAZIO berrituaren kudeaketaren, mantentze-lanen eta bermearen (P1, P2 eta P3) erantzukizunak bere gain hartuko ditu, kontratuaren esparruan une hartara arte P1, P2 eta P3 prestazioek zituzten baldintza beretan.

Kontratu honetan hitzartutakoa betez, kontratuaren amaieran, EZEak INSTALAZIO berrirako erositako elementu eta osagai guztiak Zestoako Udalarenak izango dira. Horrenbestez, EZEak ezingo du INSTALAZIOaren edozein elementu edo INSTALAZIO osoa haiek betetzeko berme gisa lotuko duen mailegurik, krediturik edo inolako motatako betebeharririk bereganatu.

Adierazitako moduan, P1, P2 eta P3 prestazioez gain, efizientzia handiko ekipoak bultzatu eta sartu nahi dira, bai eta energia berriztagarriak ere (energia fotovoltaikoa, adibidez), P4 prestazioaren bitartez.

Instalazio gehigarri horiek esleipendunak proposatu, egikaritu eta finantzatu ditu borondatez, kontratuaren indarraldiak dirauen bitartean lortutako aurrezkien bidez, eta ez dute inolako eragin ekonomikorik izango kontratu honen aurrekontuan.

Esleipendunak Zestoako Udalaren instalazioetan bere borondatez planteatutako edozein inbertsionarako, Udalaren beraren onspena beharko du, eta harena da inbertsioaren egikaritzea onartzeko edo atzera botatzeko ahalmena.

10.- BESTE JARDUERA BATZUK

10.1.- Zestoako Udalerriko argi-jasotzea

Kanpoko argiteriaren instalazioen hobekuntza- eta berritze-lanak egikaritu eta amaitu ondoren (P4



ZESTOAKO UDALA

prestazioa), EZE esleipendunak Zestoako Udalerriko argi-jasotzea egingo du, gune adierazgarri bakoitzaren (kaleak, plazak, etab.) argi-mailak markatuz. Lortutako mailek, lanak amaitu ondoren, 1890/2008 EDak adierazitako parametroetan egon behar du. Egindako neurketetan desbideratze garrantzitsuak egongo balira, EZE esleipendunak beharrezko ekintzak egin beharko ditu haiek konpontzeko, 30 egun baino lehenago. Jarduera horiek Zestoako Udaleko zerbitzu teknikoek onartu beharko dituzte. Konponketen kostuak EZE esleipendunak ordainduko ditu.

10.2.- Instalazioak indarrean dagoen araudiari egokitzea eta birmoldaketak

Atal horretako lantzat hartuko dira instalazioak legeztatze ikuskaritzetatik eratorriak, eta instalazioak hobetzeko eta berritzeko lanekin batera egikaritu beharko dira. Lan horiek guztiak egikaritu ondoren, EZEak jarduerak egin ondoren lortutako instalazioak legeztatuko ditu, eta ikuskaritzaren arabera aldatutako instalazioak soilik legeztatuko dira..

10.3.- Jaietako eta Gabonetako argiteria

Jai-, kirol- edo kultura-ekitaldietan edo Zestoako Udalak interes orokorreko irizitako beste edozein ekitalditan, haiek garatuko diren gunean eta zehaztutako denbora-tartean kanpoko argiteria publikoaren instalazioek behar bezala funtzionatzea EZEaren ardurara izango da. Zestoako Udalak Gabonetako apaingarriak emango dizkio EZEari, eta hura arduratuko da apaingarrien instalazioak egokitu, muntatu eta desmuntatzeaz.

Ekitaldi bakoitzaren ezaugarriak gorabehera, instalazioa aurrez ikuskatzea eta hautemandako gabeziak konpontzea, funtzionamenduaren ordutegia aldatzea, instalazioa partzialki edo osorik itzaltzea, eta elementu jakin batzuek muntatzea edo/eta desmuntatzea sar daitezke. Udalak azken urtean egindako Gabonetako argiteriaren zerrenda emango dio, orientabide gisa erabiltzeko.

10.4.- Lan-programaren zerbitzua emateko era

Egin beharreko jardueren garrantziaren arabera edo udal-zerbitzu teknikoek berariaz hala eskatuz gero, kontratistak, lanei hasiera eman aurretik, exekuzio-plan bat aurkezteko betebeharra du, Zestoako Udalak onartu beharko duena. Onartu ondoren, planak kontratu izaera hartuko du. Obrari ekin aurretik, lekuan bertan birplanteatuko da, eta une horretan zein lanak egikaritzen ari diren bitartean aldaketa partzialak egiteko aukera egongo da, betiere bi aldeak ados baldin badaude.

Obrak ezarritako egunean amaituko beharko dira, dela hasieran aurreikusitako epean, dela epea luzatu ondoren ezarritako epean.

Kontratistak Zestoako Udaleko arduradunaren esku jarriko du obrako liburu bat; lanen egikaritzea eta gerta daitezkeen aldaketak liburu horretan idatziko dira aldiaren behin.

Aurreko atalean zehaztutakoa betetzeko, kontratistak funtsean eguneko lanaldian jardungo duten lantaldeak antolatu beharko ditu. Talde horiek ez dute zerikusirik izango argiteria-sarearen mantentze-lanetan arituko den taldearekin. Lantalde horiek INSTALAZIOAREN instalazio osoa egiteko gai izango dira.

11.- INSTALAZIOAK ENTREGATU ETA JASOTZEA KONTRATUA AMAITZEAN

Kontratua amaitzean, EZEak Zestoako Udalari entregatuko dizkio egikaritutako lanak eta egindako



ZESTOAKO UDALA

instalazioak, eta EZEak bermatu beharko du gutxienez urtebeteko bermearekin entregatuko dituela, Zestoako Udalak jasotako egunetik zenbatzen hasita.

Kontratuaren iraunaldian EZEak instalatutako edozein elementu aipatu berri dugun urtebeteko epea baino lehen ordezkatu behar bada, ordezkatzearen gastuak EZEak ordaindu beharko ditu, betiere hondatzea ez bada erabilera anormal baten ondorio.



ZESTOAKO UDALA

ZESTOAKO UDALERRIKO KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOKO INSTALAZIOETAKO ZERBITZUEN PRESTAZIOAREN KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAREN ERANSKINEN ZERRENDA

OHARRA: Eranskinen zerrenda hau udalerrri baten argiteria LED teknologiarri egokituta berritzeko lehiaketa baten pleguak osatzeko egindako lanaren emaitza da. Helburu bakarra lehiatzaileek aurkeztu ditzaketen soluzioak definitzen, haien kotak ezartzen, argitzen eta alderatzen laguntzea da.

- A1 eranskina.- CEI-IDAE Led teknologiadun kanpoko argiteriako luminarietarako eska daitezkeen baldintza teknikoak.
- A2 eranskina.- Led teknologiadun kanpoko argiteriako luminarietarako beharrezko ziurtagiriak eta entseguak.
- B eranskina.- Led teknologiadun kanpoko argiteriako luminariak bete beharreko gutxieneko baldintza teknikoak.
- C eranskina.- Udalerriko kanpoko argiteria publikoaren auditoretza energetikoa.
- D eranskina.- Gabonetako argiteria osatzen duten instalazioen zerrenda.



ZESTOAKO UDALA

A1 ERANSKINA.- CEI-IDAE Led teknologiadun kanpoko argiteriako luminarietarako eska daitezkeen baldintza teknikoak.

http://www.idae.es/uploads/documentos/documentos_Requerimientos_LED_REV-4-120815_81a949fd.pdf

A2 ERANSKINA: Led teknologiadun kanpoko argiteriarako beharrezko ziurtagiriak eta entseguak.

A1 ERANSKINAREN dokumentuan sartutako LED teknologiadun kanpoko argiteriarako eska daitezkeen baldintza teknikoak osorik betetzeaz gain, hori betetzeko beharrezkoak diren ziurtagiriak eta entseguak aurkeztuko dira, ondorengo taulan agertzen direnak.

ENTITATE AKREDITATU BATEK EMANDAKO ZIURTAGIRIAK ETA ENTSEGUAK		
1	CE bereizgarria: Argiteriaren eta haren osagaien Adostasun Deklarazioa eta Espediente Teknikoa.	
2	Argiteria osoaren hermetikotasun-mailari buruzko ziurtagiria, edo, horrelakorik izan ezean, argiteriak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren elementu gehigarrietako bakoitzarena. (IP6x gomendatzen da).	
3	Luminariaren fometria tenperatura egonkortuan, EN-13032 Arauaren arabera.	
4	Luminariaren neurri elektrikoak: tentsioa, elikadura-korrontea, potentziak eta potentzia-faktorea.	
5	Luminariaren efikazia (gutxienez 80 lm/W).	
6	Erreproduktzio Kromatikoaren Indizearen neurria. (Gutxienez Ra 70)	
7	Kolore-tenperaturaren neurria. (Onartutako tartea: 2.700K – 4.000K (+300)) hau izan ezik	
8	UNE-EN 60598-1 (Luminariak. Baldintza orokorrak eta entseguak), UNE-EN 60598-2.3 (luminariak) eta UNE-EN 60598-2- arauak betetzeari buruzko ziurtagiria.	
9	UNE-EN 62031 (LED modulueterako segurtasun-baldintzak) eta UNE-EN 62471 (lanparen eta lanparak erabiltzen dituzten gailuen segurtasun fotobiologikoa) arauak betetzearen ziurtagiria.	
10	Kontrol elektronikoko gailuei buruzko UNE-EN 61347-2-13 eta UNE-EN 62384 arauak betetzearen ziurtagiria.	
11	UNE-EN 55015 (perturbazio erradioelektrikoaren mugak), UNE-EN 61547 (CEM immunitatea) eta UNE-EN 61000-3 arauak betetzearen ziurtagiria.	



ZESTOAKO UDALA

B ERANSKINA: Led teknologiadun kanpoko argiteriako luminariet bete beharreko gutxieneko baldintza teknikoak

Luminariet bete beharreko baldintza teknikoak

BIDEKO EREDUA

Eredua	Eskatzen diren gutxieneko balioak	Lizitatuzaileak bete beharrekoak
Materialak	Luminariaren gorputza eta finkapena, EN AC-43000, EN AC-43400, EN AC 44100, EN AC 47100 motako injektatutako aluminio galdatuzko piezez osatua, UNE EN 1706 araua betez.	
Akabatu-motak	Karkasaren kanpoko pinturak ISO 2808 bete beharko du: >= 20µm pintura likidorako. >= 60µm gainazal leunetarako hauts-pinturarako. >= 80µm leunak ez diren zatietarako.	
Sistema integratuen mantentze-lanak	Sistema osatzen duten atalen ordezkapen edo sarbide independentea (ekipo optikoa eta ekipo osagarriak)	
Sistema optikoaren eta ekipo osagarriaren portaeren babes-maila (IP)	≥ 65	
IK babes-maila globala	≥ 08	
Sistema optikoak	Eskuragarri, gutxienez 3 sistema optiko desberdin (fotometria) dituela	
Kolore-tenperatura maximoa	4000K + 300K	
Kontrol-konfigurazio eskuragarriak, erregulazio-sistema hauetako batekin edo batzuekin	DALI, 3 urratsezko erregulazioa, Maila bikoitza, Aginte-haria, Erregulazioa goiburuan, Argi-fluxu konstantea, edo/eta Argi-fluxu egokigarria	
Tentsio-gailur kaltegarrien aurkako babesa sartuko da sarean, tximistak sortutako gaintentsioen aurkakoak barne	Luminarian integratuta edo ez Gutxienez 10Kv	
FHS/ULOR instalatuta	Gehienez %3 gehienez, EE 245/2009 Erregelamenduaren 25. taularen arabera	
Klase elektrikoa	I. klasea eta II. klasea eskuragarri	



ZESTOAKO UDALA

INGURUKO EREDUA ETA FAROLA

Eredua	Eskatzen diren gutxieneko balioak	Lizitatuzaileak bete beharrekoak
MATERIALAK	Luminariaren gorputza eta finkapena, EN AC-43000, EN AC 43400, EN AC 44100, EN AC 47100 motako injektatutako aluminio galdatuzko piezez osatua, UNE EN 1706 araua betez, edo kalitate altuko polimero indartukoa, UNE 53104, UNE-EN ISO 2440, UNE-EN ISO 4589/1, UNE-EN ISO 4589/2 eta UNE-EN ISO 4589/3 entseguak betez.	
AKABATU MOTAK	Karkasaren kanpoko pinturak ISO 2808 bete beharko du: >= 20µm pintura likidorako. >= 60µm gainazal leunetarako hauts-pinturarako. >= 80µm leunak ez diren zatietarako.	
Sistema optikoaren eta ekipo osagarriaren babes-maila (IP)	≥ 65	
IK babes-maila globala	≥ 08	
Sistema optikoak	Eskuragarri, banaketa simetrikoa eta asimetrikoa duten 2 sistema optiko desberdin (fotometria) dituela gutxienez	
Kolore-tenperatura maximoa	3000K + 300K	
Kontrol-konfigurazio eskuragarriak, erregulazio-sistema hauetako batekin edo batzuekin	DALI, 3 urratsezko erregulazioa, Maila bikoitza, Aginte-haria, Erregulazioa goiburuan, Argi-fluxu konstantea, edo/eta Argi-fluxu egokigarria	
Tentsio-gailur kaltegarrien aurkako babes sartuko da sarean, tximistak sortutako gaintentsioen aurkakoak barne	Luminarian integratuta edo ez Gutxienez 10Kv	
FHS/ULOR instalatuta	Maximoa EE 245/2009 Erregelamenduaren 25. taularen arabera	
Klase elektrikoa	I. klasea eta II. klasea eskuragarri	



ZESTOAKO UDALA

APLIKEAK / HERMETIKOAK EREDUA

Eredua	Eskatzen diren gutxieneko balioak	Lizitatzailerak bete beharrekoak
MATERIALAK	Luminariaren gorputza eta finkapena, EN AC-43000, EN AC-43400, EN AC 44100, EN AC 47100 motako injektatutako aluminio galdatuzko piezez osatua, UNE EN 1706 araua betez.	
AKABATU MOTAK	Karkasaren kanpoko pinturak egoki bete beharko du 1.000 orduko zaharkitze azeleratuko entsegua, UNE EN ISO 11507:2007 betez	
Sistema optikoaren eta ekipo osagarriaren babes-maila (IP)	≥ 66	
IK babes-maila globala	≥ 08	
Sistema optikoak	Eskuragarri, gutxienez 3 sistema optiko desberdin (fotometria) dituela	
Kolore-tenperatura maximoa	4000K + 300K	
Kontrol-konfigurazio eskuragarriak, erregulazio-sistema hauetako batekin edo batzuekin	DALI, 3 urratsezko erregulazioa, Maila bikoitza, Aginte-haria, Erregulazioa goiburuan, Argi-fluxu konstantea, edo/eta Argi-fluxu egokigarria	
Tentsio kaltegarrien aurkako babesa sartuko da sarean, tximistak sortutakoak barne	Luminarian integratuta edo ez Gutxienez 10Kv	
Klase elektrikoa	I. klasea eta II. klasea eskuragarri	



ZESTOAKO UDALA

PROIEKTAGAILU EREDUA

Eredua	Eskatzen diren gutxieneko balioak	Lizitatuzaileak bete beharrekoak
MATERIALAK	Luminariaren gorputza eta finkapena, EN AC-43000, EN AC-43400, EN AC 44100, EN AC 47100 motako injektatutako aluminio galdatuzko piezez osatua, UNE EN 1706 araua betez.	
AKABATU MOTAK	Karkasaren kanpoko pinturak ISO 2808 bete beharko du: >= 20µm pintura likidorako. >= 60µm gainazal leunetarako hauts-pinturarako. >= 80µm leunak ez diren zatietarako.	
Sistema optikoaren eta ekipo osagarriaren babes-maila (IP)	≥ 66	
IK babes-maila globala	≥ 08	
Sistema optikoak	Eskuragarri, gutxienez 3 sistema optiko desberdin (fotometria) dituela	
Kolore-tenperatura maximoa	4000K + 300K	
Kontrol-konfigurazio eskuragarriak, erregulazio-sistema hauetako batekin edo batzuekin	DALI, 3 urratsezko erregulazioa, Maila bikoitza, Aginte-haria, Erregulazioa goiburuan, Argi-fluxu konstantea, edo/eta Argi-fluxu egokigarria	
Tentsio kaltegarrien aurkako babesa sartuko da sarean, tximistak sortutakoak barne	Luminarian integratuta edo ez Gutxienez 10Kv	
Klase elektrikoa	I. klasea eta II. klasea eskuragarri	



ZESTOAKO UDALA

C ERANSKINA: Udalerriko kanpoko argiteria publikoaren auditoretza energetikoa

D ERANSKINA: Gabonetako argiteria osatzen duten instalazioen zerrenda.

Gabonetako jaietan gutxienez instalatu beharreko elementuen zerrenda argitaratuko du Udalak webgunean (kontratatzailearen profilean). Udalak emango ditu eta behar bezala ikusi behar dira urtero abenduaren 1etik urtarrilaren 7ra arte.